

Kaixo, Nuria! Egun on!

Sofía dut izena eta 51 urteko gasteiztar margolari bat naiz.

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkizut zure irratiko saioagatik. “Faktoria” saioaren entzule amorratuenekoa naiz eta oso lan polita zein erabilgarria egiten duzula uste dut.

Beno, azalduko dizut nire kezka: Gasteizko alde zaharreko pisu txiki batean bizi naiz; 40 m<sup>2</sup> baino ez ditu eta, etxebizitza izateaz gain, nire lantokia ere bada, egongelan hain zuzen ere. Bakarrik bizi arren eta ondasun gehiegi (jantziak, osagaiak, oinetakoak...) eduki ez arren, ez naiz gai nire lan materialetarako lekua aurkitzeko. Pisuak logela bakarra dauka eta trastelekurik ez. Egongelako paretan dauden apalak margotzeko materialez beteta daude: pintzelak eta pinturak direla, margolariei buruzko liburuak direla, anabasa hutsa da lekua.

Horretaz gain, lotsa ematen dit jendea etxera etortzera gonbidatzeak. Izugarri gustatuko litzaidake etxean festak antolatzea nire lagunekin, baina momentuz ezinezkoa delako susmoa dut; ez nuke nire bizitza soziala galdu nahi...

Eskertuko nizuke aholku batzuk emango bazenizkit, zer egin dezakedan jakiteko: nondik atera dezaket lekua materialak gordetzeko?; nola lortu dezaket egongela ez bakarrik lan egiteko espazioa izatea?

Beno Nuria, benetan eskertuko nizuke argi pixka bat jarriko bazenu “margolan ilun” honetan.

Tira, bada, eskerrik asko, berriro ere, eta ondo izan.

Sofía